

Preguntas de Satorralaia al gobierno municipal de Donostia:

SATORRALAIA :: 26/06/2020

[Euskara]

Satorralaia bizilagunen mugimenduak Donostiako Metroaren obrak erabat geldiaraz daitezen aldarrikatzeko elkarretaratzea egin du gaur goizean Udaletxearen aurrean, eta zenbait pertsonak "Metroari STOP" banderolak zabaldu dituzte Udal-Batzarraren aretoan, metroaren auziari buruz Elkarrekin-Donostia talde politikoak aurkeztu duen mozioa eztabaidatu den bitartean.

MOZIOA: Metroaren obren jarraipen batzordea bildu dadin eskatu duen mozioarekin bat egin dute Elkarrekin, EH Bildu eta PPren zinegotziek, baina atzera bota dute PNV eta PSOEk.

Horrenbestez, egungo **Udal Gobernuaren jarrera** berriro salatu nahi du Satorralaiak, Metroaren obra sustatzen duten ETS eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko **morrontza lotsagarria** erakusten duelako. Honi dagokionean, **galdera hauek** egiten ditugu bestalde:

- Zergatik onartzen du Udalak Metroaren **obrak hirigunean eragindako ingurumen eraso etengabea**?
- Zergatik eman zuen Udalak **Metroa Kontxako hondartzaren azpian** eraiki ahal izateko **kosten baimenaren aldeko txostena**?
- Zergatik **ez du hiriko Dbus defendatzen** Euskal Gobernuak Metroaren proiektuan aurrikusten dituen autobus zerbitzuen murrizketen aurrean?
- Zergatik onartzen du **hiriko eraikinetan** azpiegitura-lan handi hori egiteak **sor ditzakeen kalteen inguruan** Eusko Jaurlaritzak **inongo azterketarik ez egitea**?
- Zergatik ez ditu aitortzen obra tzar honek pertsonen segurtasunarentzat eta hiriaren osotasunarentzat dakartzan arriskuak eta gerta daitezkeen egoeren larritasuna, joan den **ekainaren 5ean Zubieta kalean gertatu den ezbehar larriak** agerian jarri duenez?
- Zergatik **ukatu** zuen Nekane Arzallus hirigintza zinegotziak Zubieta kaleko ezbeharrak **Metroaren obrarekin duen zerikusia**?
- **Noren interesak defendatzen ditu Udalak**, Euskal Gobernuaren eta enpresa eraikitzaileen interesak ala Donostiako herritarrenak?

Satorralaia bizilagunen mugimendua

Informazio gehiago: www.satorralaia.wordpress.com

[Castellano]

(INFO pleno municipal) El Gobierno municipal rechaza la moción

PREGUNTAS DE SATORRALAIA AL GOBIERNO MUNICIPAL DE DONOSTIA:

El movimiento vecinal Satorralaia ha realizado hoy una concentración en el ayuntamiento para reclamar la paralización total de las obras de la pasante de Metro ante la celebración del Pleno municipal. Varias personas han desplegado en el salón de plenos banderolas contra el Metro mientras se producía el debate sobre la moción presentada por Elkarrekin-Donostia sobre la cuestión del Metro.

MOCION: La moción solicitaba la convocatoria de la comisión de seguimiento de las obras del Metro y ha recibido el apoyo de los concejales de Elkarrekin, EH Bildu y PP, pero ha sido rechazada por los votos contrarios del PNV y del PSOE.

Satorralaia quiere por tanto denunciar nuevamente **la actitud del actual Gobierno municipal** porque viene mostrando un total **servilismo** hacia los intereses del Gobierno Vasco que promueve el Metro. A este respecto **preguntamos**:

- ¿Por qué tolera el Ayuntamiento la **permanente agresión ambiental** que generan las obras del Metro en la ciudad?
- ¿Por qué **informó favorablemente** el Ayuntamiento a la concesión del permiso de costas para la ejecución del **Metro bajo la playa de la Concha**?
- ¿Por qué **no defiende a la municipal Dbus** frente a los recortes de servicios en autobús planteados por el Gobierno Vasco en el proyecto del Metro?
- ¿Por qué admite la ejecución de esta gran infraestructura sin que el Gobierno Vasco haya realizado **ningún estudio sobre la afección de las obras en los edificios** próximos al trazado?
- ¿Por qué pretende ignorar la gravedad de las situaciones que pueden plantearse para la seguridad de las personas y la integridad urbanística de Donostia con nuevos **sinistros como el sucedido el pasado día 5 de junio en la calle Zubieta**?
- ¿Por qué declaró la concejala de Urbanismo Nekane Arzallus que el siniestro **no tenía nada que ver con las obras del Metro**?
- ¿**Los intereses de quien defiende el Gobierno municipal**, del Gobierno Vasco y de las empresas constructoras o de los vecinos/as de Donostia?

Movimiento vecinal Satorralaia

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/preguntas-de-satorralaia-al-gobierno